

EUSKALDUNOK EUSKARAZ ETA KITOI

Azken hilabete hauetan, Egunkarietan, Irratietan eta Euskal Telebistan ere bai, gutxiago izan baldin bada ere, euskaldunok euskara erabiltzera bultzatzeko dei biziak jaso izan ditugu.

Donostia inguruetara hurreratu baldin bazarete, harriturik ikusi izango zenuten kaleetan zehar (hauteskunde garaietan bezalaxe) gure zenbait kirolari ospatsuaren irudiz hornituriko iragarik ugari, euskara erabiltzera dei eginez.

Dudarik gabe, gure Erakunde Publikoek, euskararen aldeko Kanpaina zabal eta garesti honen bidez euskaldunoi euskara eguneroko bizitzako harreman guztietan (Administrazioarekikoetan ere bai, ezta?) erabili behar dugula gogora ekarri nahi izan digute, aspaldi honetan atzerakada edo nabaritu izan da bazterretan eta.

Horrek gezurra dirudi, baina hala gertatzen ari da. Euskaldunoi ere aurpegira jaurtiki behar euskara erabili beharra dugula. Hain handiak dira erdararen eragipena eta bizitzako berezko inertzia.

Kanpaina hori egiterakoan, zer esanik ez, beste zenbait Herrialdietan antzerako hizkuntz egoera larrietan erabili direnen bideetatik jokatu nahi izan da. Benetan txalogarria, ondorioak ikusteko baldin badira ere!

Hain zuzen ere, aspaldi, hilkanpai hotsak entzuten hasiak ginen zenbait euskalzale, alor batzutan aurrerakada nabariak ikusten badira ere, euskara eguneroko erabileran atzerakada ari denaren beldurrez.

SIADKO-k Gipuzkoan (beraz, euskaldun gehien dagoen Lurraldean eta, era berean, euskararik gehien entzun beharko litzatekeenean) azken urteotan eginiko azterketak argi eta garbi erakutsi izan dute atzerantz ari gareala, geroago eta gutxiago erabilia baita lehenago euskara hutsez bideratzen ziren alor askotan.

Argi dago, bada, honela jarraituz, elur bola handi baten antzera geroago eta inertzia handiagoz, maldaz behera abiada bizian galbiderako leize zulo sakonerantz goazela!

Hasiera batetan, SIADKO-ren datuak sinestezintzat edo eta beldur-eragilgarritzat jo genituen; gero, susmo txarrak hartzen hasi gara, lehenago parra-parra euskara baino erabiltzen ez zen zenbait tokitan geroago eta erdara gehiago entzuten dela ikustean; azkenik, azaleko lilura itxura ematen duten zenbait datu (liburuen ugiriketa, ikastolen hedakuntza, eskoletan euskara irakastea,TM) aide utzirik eguneroko errealitate gorriaz jabetzen hasi gara.

SO

GIZARTEA

Eta errealitatea, antza, guk uste genuena baino larriago dugu. Besterik beste, zera ematen digu adizera: euskarak ez duela benetako baliorik gure gizarte honetan; hots, ez dugula euskararen beharrik denok erdaldunduak izan garen gizarte honetan.

Euskara jakitea, gehien batetan, egokitza, komenigarritza, txalogarritza, gehienez aipagarritza jotzen da, baina inolaz ere ez beharrezkotza. Eta hori Euskalerrri euskaldun batetan amets

gozoak egiten dituzten zenbaiten artean ere bai. Eta ondo baino hobeto dakigu zer gertatzen zaien, zoritxarrez, beharrezkoak ez direnei, gure mundu praktikoa honetan, gutxietsi eta albora utzi ondoren epe laburrera guztiz galdu.

Bestalde, egoera hain larria izanik, euskera erabiltzearen aldeko aipaturiko Kanpaina hori egin dutenei (eskerrik beroenak eman ondoren, noski) noiz hasi behar duten beraien etxeetako hautsak astintzen itandu behar diegu. Euskara erabiltzera egin digute dei. Ederto! Egin dezaiegun jaramon! Ekin gaitzen ia erdara hutsean eraikia den Administrazioari euskara hutsez eskatzen. Indarrean diren legeak bete erazten!

Hala ere, zer esanik ez, oso egokitza jotzen dut Kanpaina hori. Orain geuk hartu behar zuzia eskuetan Agintariei euskara erabiltzea exigituz. Une honetan, aurrera egitekotan (Kontutan har dezagun aurrera ez egitea atzera jotzea dugula) euskara erabiltzeaz gainera, erantzuna euskaraz jasotea ere eskatu behar dugu gure arteko harremanetan, bereziki Erakunde Publikoen esku diren tokietan!

Kanpaina horretan erabilitako diruari etekinik atera nahi badiogu, jo eta ke, etengabe ekin beharko dugu guztiok. Deia entzun dugu! Orain erantzu-

EUSKAMI

HAmiWiiMABM



m/JL. GPUZKOAKD/FORUALDUNDIA-

EUSKALDUNOK: USI!! | i l l e i t o r e i .

Euskalduna: Zeu zailul gogoa eta badakit alkar aituko doguna. Eta euskeraz egiten deusut, gure bairiketaldi honetan euskera la Euskadi etabilko ditugulako-
lianok dakigu, Euskadi bere buruaren jabe izan daien, euskera behar beharrezkoa dogu; be,
Huskal Herria, euskeraz egiten dogunon hen be,
Euskerea, euskaldunoa nortasunaren ..lagarririk agirikoa da. Euskera bank, e
Euskadirik. Eta halan be, zeinen juitiztal daukagun! Milaka lagun ikasten ibili rren, euskerea egoera larrian dago; giza-eraketak, >-munitateak, irakaskuntzak... eta batez be, vuskeraz jakin eta lagun artean erabilien ez dogunok bazterten dogu gehien
Holatu ezin dogu aurrera egin. Geuzaz baiera eusker a be Ka daieka lortuko dogu. Jaso daigun euskera! *Euskaldunok: Guk beti gurea: etxean. - a uatez be kalcian: behar lekuan, dendan, labernan. lagun anean, ofizinan, eroseketak egitekoan... Ez gaitzean loisatu. Egin daigun. Holan gute inguruan benetako euskaldun giro bai egingo dogu: gure lagun eta ezagunak be, euskeraz egingo dabe, eta huskal Herriak, laster baten bere hizkuntza egingo (Jau. Euskaldunok; Ez daigun aizera egin. Zaindu daigun i erabiliaz. Edonon eia edonoi/. Guk beti geurt

BIZKAIKO FORI ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE VIZCAYA

na falta! Olinpiada hau ez dugu, unetxo, ordu, toki edo ingurugiro batetara mugatzekoa!!!

Euskararen 'geroa, dudarik gabe, euskaldunon esku dugu eta iraungo baldin badu, legez ofiziala izatetik benetan bizitzan hala izatera lortu behar dugu.

Bide batez, gainera, berrituzi egin behar diegu dei hori Agintariei, oihartzun gisa, aurrerantzean euskara erabili nahi dugunoi horretarako dugun eskubidea egitan onar diezaguten.

Euskara erabili eta eguneroko bizitza osoa euskara hutsean egiteko dugun berezko gizaesku-bidea ez ezik Legea ere gure aide dugu.

Hori dela eta jaso nahi izan ditugu Karrirel gure aldizkari honetan euskara erabiltzera bultzatzeko Kanpainaren barruan egunkarietan eskaini diguten Euskararen Legearen laburpena*

Horrela eginik, aldizkari hau hartzen duzuen guztioi gogoeta edo hausnarketarako gai eta tresna eder bat eskaintzen dizucgulakoan gaude. Aukera ederra izango dugu Legearen ispilu lerdaren egoeraren kutsadurak ikusi eta non, nori eta noiz zer eskatu jakiteko.

Zuk eta nik, denok, euskaraz egitea ez ezik, erantzuna euskaraz, jasotea exijitu behar dugu.

Patxi Uribarren

EUSKARA

Eoskamreo Erabilpena Arauzkotzezko Oinarrizko Legea.

* Eusko Legebiltzariak onartu
zuen. Euzko Legebiltzariak onartu
zuen. 1982.eko Auzorearen
24an iratzen da.

eskubide hori da Eusko*



h uskararen eta gaztelanfaren erabilkera
TLege honetan eta honen ostean Eusko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak emango dituzten aginduetan oinarrituko da.

Euskal Herriak

•• j Euskara here hizkuntzatza du.




Euskal Herriaren hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira.



Art. 4.

Agintariek, hizkuntza dela eta, inor diskriminatua ez izateko neurriak hartu beharko dituzte.

tiuskai Herriko herrial guztiak date hizkuntza ofizialak. bai hñzez eta bai idatziz ere. ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Eta Herri Agintariek eskubide hau garantizatu egingo date.



Art. 6.

Edo zein herritarrek, eskubidea du, Administrazio Publikoarekin dituen harremanak X euskaraz zein gaztelaniaz edukitzeko eta, be re aukerako hizkuntza ofizialean erantzuna jasotzeko.



Dokumentuen inskribapena erregistro publikoetan, idaizia dauden hizkuntzan egingo da eta kaleraizera edo inskribatzea nahi bada horien itzulpena egin ahal izatea garantizatuko da. Administrazioaren W disposizio, erabaki ofizial, berri emanketa eta komunikazio guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon beharko dute.

Art.
7.8.



Art.
12.

Eusko Jaurlaritzak arautuko ditu bi hizkuntzen arteko zinezko itzultzaile titulua eskuratzeko eta emateko baldintzak. Itzultzaile zerbitzu ofiziala sortuko da.



Art.
9.

Herritarrak, Justiziako Administrazioarekin izango dituen harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea du.





Euskal Herriko Lurralde, udalerrri, mendi, eskualde, hiribide eta abarren izen ofizialak, Eusko- Jaurlaritzak, Foru Diputazioek eta Udaiek erabakiko dituzte, jatorrizko izen euskalduna edo gaztelaniazkoa errespetatu. Trafikoko seinale eta oharrak, bi hizkuntzetan idatziko dira.



t, uskal Herrian hasiera duten garni it publikoetako zerbitzu guztietan, inpresok, abixoak eta komuni-euskaraz eta gaztelu jarri beharko dira



Art. 13.

Euskadiko Herri Erakundeetako inpresok guztiak, bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute.


Art.

14.

Berriro.
Ni nâiz...

*s&

Administrazio Publikoan egiten duten langileak poliki-poliki euskalduntzeko neurriak hartu beharko dira. Agintari Publikoek erabakiko dute zein lanpostutarako izango den beharrezko bi hizkuntzak jakitea, eta beste lanpostu batzuez jabetu ahal izateko, beste merezimendu batzuren artean, euskara eta gaztelaniaren ezagupena hariuko da konlutan.



Euskara ikastea gogoko dugu.

Art.

15.

Ikasleek ikasketa guztiak uskaraz zein gaztelaniaz egiteko eskubidea dute.



Irakasteko,
ikasi egin
behar da.



^^^(dflM


Art.
1920

Irakaslearen Formaziorako Unibertsitate Eskolek Ikasketa Esiudio Planak jokitu beharko dituzte. irakasleek, bai Euskdratz eta bai Gaztelaniaz ere, irakasteko gaitasun osoa lortu aha I izateko. Jaurlearitzak, irakasle goa poliki-poliki euskalduntzeko bideak jarriko ditu eta zein lanpostutarako euskara jakitea derrigorrezko den erabakiko da.



Art.
16-21

Unibertsitateko urtetarainoko irakaskuntzan, aitak edo tutoreak, edo ikasleak berak aukeratu ez duen hizkuntza^j ofiziala irakaslea, ezinbestekoa izango da. Dirutiaguntza jasotzen duten Ikastetxe Pribatuek.derrigorrez Euskara eta Gaztelania eman beharko dituzte asijnaturaz bezala. Oinarrizko Hezkuntza Orokorra Euskal Herritik kanpo bizi zirela hasi edo Euskal Herritik kanpo bizi diren ikasleentzako ez.da izango derrigorrezko Euskara ikastea.



Art.
1711

Oinarrizko Hi Orokorra amaitzer.. ikasleek bi hizkutu: ezagutu eta erabili ahal izateko garrantia neurriak hartuko ditu Eusko Jaurlearitzak. Horretarako ikasketa planak ego kitu beharko dira.


Euskarak
iautilza
handiagoa
behar du.



*Euskadiko
komunikadideetan
Euskarak
lehentasuna izateko
neurriak hartuko
ditu Eusko
Jaurlaritzak.*

Legeak,
guztiok behartzen
gaitu.

Aukerabide
berdinak kontutan
hartuta, egin
behar aukeraketa.



Art.
22

*Komunikabide sozialetatik,
albisteak euskaraz eta
gaztelaniaz jasotzeko
eskubidea dute herritar
guztiak eta bi
hizkuntzek, poliki-poliki,
egoera berdina izan
dezaten egin behar
dira ahaleginak.*



Art.
24

*Jaurlaritzak. Euskal
Herriko Irrati eta
Telebisteian euskara
bultzatzeko ahaleginak
egkigo dim.
Euskal Herriko
hizkuntza dene:, behar
bezalako zabalkundea
izan dezan.*



Izan ala ez izan...

Art.
25.

Fiitso Jaurtaritzak, irratiaic egunkari eta aldizkarietan, zineman, antzerki eta espektakuluetan, eta abarretan... gero eta gehiago Euskara erabiltzea buhaztu egingo da.



Euskara,
erabili egin
behar da.

Art.
26.

Gizarte bizitzaren alor ezizietan Euskara erabiltzeko neurri egokiak hartuko dituzte agintari publikoek.



Honda,
guztiok ulerf7.cn
dugu elkar.

VIAW
m

*Euskal Agintari Pubtikoeek,
publizitatean Euskara erabiltzeu
buhzatuko dute. Eta
euskara giroa indartuko
dute eta ofizialak
ez diren erakundeen
errotulazioak ere euskaraz
jarizeka neurriak hartukn
dituzte.*

*r-
tiusko Jaurlaritzak,
helduentzako Euskararen
irakaskuntza eta euskaldungoa
alfabetatzea buhzatuko
ditu, horretarako
Erakunde Publiko
bat sorriuko du.*

Guztiok
ikas dezakete
Euskara.

Kuskadiren
^eroaren
aide.



Art.
28



Articulo
29.30

*•i-T Eusko Jaurlaritzak, hainbat Erakunderen ahaieSirl-
bideetan jartzeko eta koordinatzeko harreman-sail bat
sortuko du, Lege honek aipatzen dituenak burutu ahal izateko.
Eusko Jaurlaritzak, Euskararen batasun eta normalkunizaz ardurat
da Euskal Herriko patrimonio kulturalaren funtsezko zati bat
diren euskalkiak ere zainduz.*